

Solidarnosi

yurek
JANISZEWSKI

Yurek Janiszewskiren irudia munduko bazter guztietan izan du isladarik.


Solidarnosk-eko ikurra marraztea abuztuko gau bateko emaitza izan zen Janiszewski marrazkilari poloniarrek Parisen euskal kultura laguntzen du

Parisen sortzen ari den Euskal Kultur Zentruak izango duen logo edo ikurra Yurek Janiszewski poloniarren eskuetarik aterako da. Donostian, duela hiru urte, bere kartela eta marrazkiak erakutsi zituen. 1980eko abuztuaren 20eko gauean egin zuen Gdansk-en Solidarnosk sindikatuarentzako marrazkia, mundu osoan ezaguna dena. EGUNKARIARI kontatu dio horren historia polita.

L. ETXEZAHARRETA / PARISE

Polonian dagoen afizio eta trebetasuna kartela ederrak egiteko Europan zehar ezaguna da. Hauen egile den goi mailako grafista horietarik bat, Yurek Janiszewski da. Parisen, Roger Ibañez laguntzen ari da bertan dagoen Euskal Kultur Zentrua bideratzeko urratsetan. Zentruaren ikurra egun hauetan moldatzen ari da. Donostian 1988ko irailaren bukaeran erakusketa bat egin zuen. Paco Ibañezek Espainian zehar bere 'Carpas' ibili zuelarik horren afitxa distirantea marraztu zuen.

Gdansk 1980eko udan izan ziren greba aipatuen ondoren, Solidarnosk sindikatua legeztatu zen. Orduko borroken ikurra izan zen logoa Janiszewskik marraztu zuen. Horretara ekarri zuen bidea kontatu digu. Yurek Janiszewski Gdansk-en jaio zen duela 40 urte. Arte Ederreko



Poloniarra Roger Ibañezi laguntzen ari zaio orain Parisen.

✓ Emaztearekin landu nuen nahi genuen elkartasuna, denak batera hori adierazi, bandera nazionala jarriz baita ere iraultza izpiritu bat (Janiszewski)

ikasketak egin zituen eta Gdansk-en zegoen 1980ko udan, 'Lenin' izeneko ontziola handietan greba gogor bat hasi zelarik Lech Walesa buru izanik. «Jende guztiak bezala, laguntza zerbait ekarri nahi nien grebariei eta nahi nion greba batzotdeari zerbait proposatu. Solidarnosk hizkia 'elkartasuna' ia idatzia zen murrutik askotan eta horrek gertatzen ari zen guztia erran nahi zuen».

ELKARTASUNAREN ADIERAZPEN UNIBERTSALA Horren inguruan lanean hasi zen:

«Grafieren aldetik landu nuen gauza, Letraset eta hizki batzu erabiliz, baina ez zuen erran nahi zehatzik ez zuen bizi askirik eta orduan idatzi nuen paretetan idazten zen bezala». Bere emaztearekin landu zuen «nahi genuen elkartasuna, denak batera hori adierazi, bandera nazionala jarriz baita ere iraultza izpiritu bat». Abuztuaren 20ko gaua horretan iragan zuen.

«Goizean joan nintzen untziolara eta erakutsi nien eta eman zidaten kopiak egiteko baimena». Gorritz atera zuen kartela moduan serigrafiko tailer batean. Eguna eta gaua lanean pasa eta goizean untziolara ekartzen ziren tiradak eta dionez «beti eskasten ziren». Geroa ezaguna da: abuztuaren 31n Solidarnosk Sindikatua legeztatua izan zen. Bilera batean Solidarnosk-ek ikurtzat hartu zuen Janiszewskiren marrazkia. Urte bukaeran setio egoera eta Solidarnosken debekatzeak izan ziren Jariuszewski jeneralak agindurik. Marrazkilariak Alemanian egindako erakusketa batez baliatu zen aterpe politikoa eskatzeko. Lortu zuen eta Parisera joan zen eta han bizi izan da azken bederatzi urte hauetan.

«Ez da aise independente izatea» dio Gdansk-eko semeak baina aukera hori jarraitzen du eta lanean darrai Parisen. Euskal Herriko bideak berarentzat ere ustekabeak izan ziren.

46 90 22

entriko
iz. Bi
la na-
oa jaso
tei

9375

UND

o beste
ZTE!
ca
NOSTIA

EDINFOR BILBO

INFORMATIKA ERRAZ
IKASTEKO ETA EUSKARAZI,
HATOR EDINFOR BILBO-RA.
HASIERATIK EDOTA
PROGRAMARIK ZAIENAK
ERREZTASUN OSOZ
ERABILTZEKO.
Fernández del Campo Kalea, 14
Tfnoa.: 410 10 56 - Fax: 442 48 52
Informazioarako ordutegia
Goizez: 9-11 - Arratsaldez: 4-9

Filmaketa baterako erosi behar izandako Renault Espace TX 2 bat daukagu salgai, SS-3929-AL. Hamar mila Km. egin ditu, denak Euskal Herrian eta ez gurdibidetan. Supailan leihoa dauka. Dialoganteak gara. Tfnoa.: 293414. (Donostia)